



**NORTZUK GARA ETA ZER NAHI DUGU
(NI ETA NIRE TALDEA)**

Elkar ezagutzen dugu (DBH)
Arabako Hezkidetza Mintegia
2002-2003

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

HELBURUAK

- Nork bere burua ezagutzeko hausnarketa egitea.
- Elkar ezagutzea.
- Gelaren antolamendua eta denon arteko komunikazioari begira hurrengo hiruhilabeterako konpromisoak hartzea.

DESKRIBAPENA

Ikasturte honen hilabete hauetan norbere burua ezagutzeko aukera izan dute, hau da, pertsona bakoitzak dituzten alde positiboak, sentimenduak, asmoak eta helburuak ageri dira.

Planifikatu ditugun jarduerak honakoak lortzeko baliagarriak izan dira.

- Norbere identitatea, boterea, jakinduria eta autoritatearen onartzea.
- Jarritako helburuekin lotutako lorpena lotzea.
- Zailtasunak eta hobetzeko proposamenak ezagutzea.
- Norbera eta taldea ondo egotea.
- Giza harremanak hobetzeko komunikazio eta bizikidetzara araukiko konpromisoa hartu horretarako beharrezkoa izan da da alde batetik, norbera nor den jakitea: zer sentitzen duen, bere asmoak, desirak...eta beste aldetik, norbere burua onartzen ikastea. Horrela gainontzeko pertsonak ezagutu eta onartu ahal izan dituzte.

Prozesu horretan aukera izan dute hainbat gauza ikasteko: inori erasorik egin eta menpe jarri barik botere pertsonala ezagutzeko eta autoritatea erabiltzeko balio diete emozio eta komunikazio trebetasunak. Era horretan askatasun eta independentzia grina asetzeko modua ezagutu dute.

Prestatu dira nork bere lagun onena izateko, baldintzagabekoa, eta hori guztia kanporatu dutenez, norberak eta gainontzeko pertsonak nahi izango dute berarekin egon. Orain aukera izango dute horretaz hausnarketa eta balorazioa egiteko. Horretarako ondoan ditugun fitxak landuko ditugu.

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

1. FITXA. AURKEZPENA FITXA.

Aurkezpen fitxa honekin zeure baitan zer dagoen ikusiko duzu Horretarako erlaxazio ariketa egingo duzu . Gero galderak erantzungo dituzu zeure burua hobeto ezagutzeko eta horrela boterea izateko. Hortik aurrera nabarituko duzu zeure burua eta taldekideak baldintzarik gabe maitatzeko hartuko duzun konpromisoa

Badakigu askotan obedienteak izateagatik maitatuak sentitu izan garela eta honek beste guztien onarpenaren menpe egotera eraman gaitu . Egoera honek konturatu barik askotan maita ezinak sentiarazten gaitu eta horregatik, falta zaigun maitasun hori lortzeko, gure boterea eman edo besteena lapurtu egiten dugu honako jarrerak erabiliz: men egitea , erasotzea edo ekiditea ,

1. Nor naiz ni? Zein da nire izena eta nola gustatzen zait jendeak niri deitzea?
.....
.....
2. Zeuregan ikusten dituzun gustuko ezaugarriak? Zein da gehien gustatzen zaizuna?.....
.....
3. Zeure sentimenduak ezagutu. Nola sentitzen zara orain?
.....
.....
4. Zertan nabaritzen duzu zeure burua baldintzarik gabe maitatzen duzula?
.....
.....
5. Familiarekin , ikaskideekin edo irakasleekin zaudenean zein portaerak edo egoerak sentiarazten dizu baldintzarik gabe maitatua zarela.?.....
.....
.....
6. Zer lortu nahi duzu ikasturte honekin?Nola egingo duzu?
.....
.....
.....
.....

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

2. FITXA. GELAKO AURKEZPENAK KOMUNEAN JARTZEA

Ezagutza izateko hainbat gauzetaz jabetu behar gara: nor naizen, inguruko pertsonak nortzuk diren...zer , zertarako eta zergatik egiten ditudan gauzak


Alderdiak	Neskak	Mutilak
1.- Nor naiz ni?		
2.-Baloratua dagoena		
3.-Identifikatutako sentimenduak		
4.-Norbere estimua indartzen duten alderdiak		
5.- Norbere estimua indartzen duten kanpoko alderdiak		
6.Ikasturte honetan egin nahi dudana		

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

3. FITXA. ADIBIDEA

GELAN JASOTAKO DATUAK (ADIBIDEA)

Tokatu zaizun zatia: Zer egin nahi dut ikasturte honetan



INFORMAZIOAREN INTERPRETAZIOA

Gelako 21 pertsonetatik , aurtan bederatzik lagunak izatea nahi dute Hemendik hau interpretatzen dut: adiskidetasuna beste gauza guztien gainera baloratzen dutela . Gainditzeko eta ondo pasatzeko gogoia ere talde horretarako garrantzitsua da. Hemendik arduratsuak izaten eta giro ona sortzen ahaleginak egiten dituztela ondoriozta dezaket . Beraiekin sartzea nahi ez duten pertsonak gaizki pasatu dutela suposatzen dut

ZER EGIN PROPOSAMENAK:


- Adiskidetasuna eta berdintasun eta parekotasun harremanak lantzea
- Agenda erabili egin beharretaz ardura hartzeko eta gainditu ahal izateko
- Zer da guretzat ondo pasatu eta ikasteko zein konpromiso hartuko dugun argitu
- Batzuk gaizki egotearen arrazoia ezagutu geure boterea eta autoritatea ezagutzeko baliagarria diren estrategiak erabiliz

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

4. FITXA. GELAKO DATUEN BILKETA

GELAKO DATUEN BILKETA

Tokatu zaizun zatia _____



INFORMAZIOAREN INTERPRETAZIOA

ZER EGIN PROPOSAMENAK

EBALUAZIORAKO JARDUERAK

IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Jarduera hau egiteko hiru saio erabiliko ditugu

Lehen saioa

1. Bakarkako lana da, beraz gela horren arabera antolatuko dugu eta horretarako dauden arauak gogoratuko ditugu.
2. Materiala banatuko zaie. Azalean agertzen den argazkiaren lekuan interesgarria litzateke taldearen argazkia jartzea. Kontuz ibili behar dugu neskek eta mutilak argazkian agertzeko hartzen dituzten lekuekin. Kontuan izan behar ditugu eskuineko aldea, altuerak eta erdia, horiek direlako ikusleak lehen ikusiko dituenak
3. 1. fitxa. beteko dute Komenigarria da ondo azaltzea galdera bakoitzaren esanahia eta adibide batzuk ipintzea
4. Erantzunak topatzeko Karpeta Pertsonalean gordetako materialaz balia daitezkeela gogoratuko diegu
5. Giro lasaia izateko eta konzentratzen laguntzeko erlaxazio txikia egingo dugu hasi baino lehen
6. Azken hamar minutuetan ondoko puntuaren artean denon artean komentarioak egingo ditugu. Honetarako asanbladetakarako antolamendu egokia erabiliko dugu, hau da, zirkulu handia egingo dugu .
 - Fitxa betetzeko zailtasunak
 - Karpetan zeukaten informazioaren baliagarritasuna

Bigarren saioa

1. Saio honetan talde handian lan egingo dugu. Komenigarria da antolamendu honek eskatzen dituen arauak errespetatzea .Beharrezkoa ikusten badugu rolak banatuko ditugu: moderatzailea, denboraren kontrolatzailea, behatzailea....
2. Aurreko saioan egindako fitxan duten informazioa konpartitzera gonbidatuko ditugu. Ikusten badugu besteen aurrean zaila egingo zaiela, azken galderatik hasiko gara , poliki, poliki girotzen joateko, edo bestela fitxak jasoko ditugu eta beraien eskuetan utziko dugu sinatzea edo ez . Hori bai, sinatzen ez dutenei neska edo mutilak diren adieraztea eskatuko diegu
3. Fitxa hori DBH ikasturte guztietan egiten bada, konpara dezakete aurreko urtetan egindakoarekin .Arlo ezberdinetan zein aldaketa izan dituzte, zer ikasi dute....

Hirugarren saioa

1. Saio honetarako lehenengoan jasotako informazioa 2.fitxan pasatutakoa izango dugu
2. Taldeak egingo ditugu .Antolamendu honek eskatzen dituen arauak eta rolak gogoratuko ditugu.Beharrezkoa ikusten badugu behatzailea jarriko dugu
3. Sei talde egingo ditugu eta talde bakoitzak 2.ftxan agertzen diren alderdietatik bat aztertuko dute .Horretarako 4.fitxa erabiliko dute
4. 3.fitxan agertzen den adibidea erabil dezakegu nola egin behar duten azaltzeko.
5. Nahi badugu neskek eta mutilek egindakoa grafikotan ere bereiztea bi grafiko egingo ditugu edo bestela bakar batean denona jaso eta bai neskek bai mutilek aportazen dutena kontuan izan behar dugula azpimarratuz
6. Azkenean talde handian aztertuko dugu talde bakoitzean egindakoa eta konpromisoak kontuan hartuko ditugu. Horretarako *taldeko koaderno*a erabiliko dugu